

1. Artikulua. Frogaren izena Donostiako San Silbestrea da. Froga 16 urtetik gorako pertsona orori zabaldua dago, edozein dela bere kategoria, sexua edo nazionalitatea. Ez da beharrezkoa atleta federatua izatea.

2. Artikulua. Lasterketa asfaltoan izango da, Donostia hiriko barne ibilbidean.

3. artikulua. Korrikalariak www.sansilvestredonostiarra.com eta www.kirolprobak.com webguneetan baino ezin izango dute izena eman. Txip horia dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek 20 euro . 20 euro ordaintzen dituztenei txip horia oparituko zaie. Txip horiak 18 euro balio ditu dendetan eta hainbat probatarako balio du -datozen urteetarako ere bai-. Beraz, parte hartzaile guztiek txip horia erabiliko dute eta ez dute bueltatu behar izango lasterketa bukatu eta gero. Probaren egunean ezin izango da izena eman eta ez da dirurik bueltatuko izen-ematea egin eta gero. Abenduaren 28tik aurrera inskripzioak Donosti Berri Elkartearen (Osasun kalea 1)egin beharko dira Txip horiekin 15 eurotan eta Izen ematea + Chip horia oparituta 25 eurotan.

4. Artikulua. KATEGORIAK: sexu bakoitzeko, kategoria bakarra egongo da:

Gizonezko Seniorra / Emakume Seniorra

5. artikulua. Lasterketako kamiseta eramatea jantzita derrigorrezkoa da. Antolakuntzak lasterketatik kanpora ditzake kamiseta ikusteko moduan ez daramaten korrikalariak.

6. artikulua. Super Amarak eskainitako Gabonetako oparia jasoko dute bi kategorietako lehen hiru sailkatuek. Bestalde, Super Amarak berak emandako erosketa txartelak jasoko dute lehen bost gizonezkoek zein emakumezkoek. Ezinbestekoa izango da kamiseta-dorsalarekin korrika egitea sariok eskuratu ahal izateko.

1º - Gabonetako oparia, txapela eta 400 euroko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

2º - Gabonetako oparia eta 250 euroko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

3º - Gabonetako oparia eta 150 euroko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

4º - Gabonetako oparia eta 100 euroko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

5º - Gabonetako oparia eta 50 euroko txartela Super Amaran erosketak egiteko.

Mozorrotuta parte hartzen duten korrikalari guztien artean Gabonetako otarre ederra zozketatuko da. Zozketa lasterketaren ondoren egingo da, antolakuntzak irteeran lasterkari guztien eskura jarriko dituen imprimakia betetzen duten guztien artean.

7.Artikulua. Antolakuntzak partehartzaile guztiei osasun errekonozimendua egitea gomendatzen die, hauetako bakoitzak kirol ekimenean partehartzeak dituen arriskuak onartzen dituelarik.

8.Artikulua. Antolakuntzak partehartzaileei eta besteei sor dakizkien kalte eta lesioekiko ardura alde batera uzten du.

9.Artikulua. Antolakuntzak dorsal osoa ikusteko moduan ez daraman pertsona lehiaketatik kanporatzeko ahalmena du. Eskertuko genizueke lasterketaren kamiseta egunean bertan eramatea.

10.Artikulua. Antolakuntza ez da galdutako gauzen arduradun egiten.

11.Artikulua. Partehartzaile guztiak frogan parte hartzeagatik KIROL ASEGURU BAT IZANGO DUTE.

12.Artikulua. Partehartzaile guztiek, bertan parte hartzeagatik Araudi hau onartzen dute. Araudi honetan agertzen ez den beste edozein gora behera G.A.F.en Araudian azaltzen denaren arabera konponduko da.

13.Artikulua. AFEDEGI denborak hartzeaz arduratuko da. (www.championchipeuskadi.com). Hala ere, gogora ekarri behar da lasterketak jai kutsua du eta lehia bigarren mailan gelditzen da. Izena emateko orduan sakelako telefono baten zenbakia ematen duten lasterkariek sms-a jasoko dute, Super Amararen eskutik, proban egindako denborarekin.